

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk

## **AGIRIAK EMOTEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA**

### **1. artikulua- IZAERIA ETA OINARRIA**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 28ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21-28 artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrita, agiriak emoteagaitik tasea ezarri da. Ordenantza fiskal honek eraenduko dau tasea,

### **2. artikulua- ZERGA EGITATEA**

Tasearen zerga egitatea da administrazioak edo udal organoek 5. artikuluan aurreikusitako agiriak emoteko behar dituen espedienteen tramitazioa dala-eta egiten dan administrazio jarduera, alde batek halan eskatuta.

### **3. artikulua- SUBJEKTU PASIBOA**

Subjektu pasiboak dira, zergadun lez, agiria eskatzen daberen pertsona fisikoak eta juridikoak, oinordetzak, ondasunen elkarrekin eta Tributuen Foru Arauaren 34. artikulua aitazten diran generako erakundeak.

### **4. artikulua- SORTZAPENA**

Tasea ordaindu beharra zerga egitatea dakarren udal jarduera hasten danean sortuko da. Horretarako, edozelan be, jarduera hasi egin dala ulertuko da subjektu pasiboak eskabidea aurkezten dauen momentuan. Horregaitik behin eskaria eginda, uko egiteak ez dau eukiko sortzapenean eraginik eta tasea ordaindu beharko da.

### **5. artikulua- ZERGA OINARRIA ETA KUOTEA**

Tasa kuota zerbitzuen tarifa taula hau aplikatzearen arabera finkatuko da:

1) Gobernu eta administrazio organoen eta horreen aurrekoen ekintzen, ebazpenen eta erabagien egiaztagirien kopia emotea:	
1. 1 -Agirien egiaztagiriak, erabagiak edo ebazpenak, 5 urte baino gehiagokoak, lehen orria	39,44 €
- Mugatik gorako orri bakotxeko	0,14 €
1.2- Agirien egiaztagiriak, erabagiak edo ebazpenak, 5 urte baino gutxiagokoak, lehen orria	26,25 €
- Mugatik gorako orri bakotxeko	

1.3 <i>Administrazio agiriaren eta espedientetako agiriaren fotokopiak emotea:</i>	
<i>Zerbitzua bera eta orri bat</i>	3,06 €
<i>bigarren orritik gora, aurrekoari orri bakoitzeko gehituko dana</i>	0,13 €
1.4- Planoen fotokopia paperean, m <sup>2</sup> -ko	3,43 €
1.5- Planoen fotokopia poliesterrean, m <sup>2</sup> -ko	10,28 €
1.6- Argazkiak paperean	2,17 €
1.7- Argazkiak disketean	2,53 €
1.8- Argazkiak CDan	3,10 €
1.9- Artxiboko dokumentuen kopia A4 orrian	0,15 €
1.10- Artxiboko dokumentuen kopia A3 orrian	0,22 €
1.11- Artxiboko dokumentuen kopia disketean	1,24 €
1.12- Artxiboko dokumentuen kopia CDan	6,52 €
2- Arma txartelak emotea	4,73 €
3- Udalaren idazkariak eginiko botere banaketean	4,73 €
4- Ondasun higiezinak eskualdatzea landa katastroaren ondorioetarako	14,33 €
5- Tokiko erakundeetan eskatzen diren egiaztagiriak, udal erroldako datuetatik egiten direnak izan ezik	4,73 €
6- Oinezko guneetara sartzeko agiriak:	
6.1- Oinezko guneetara ibilgailuak sartzeko galdu, lapurtu edo alferrik galdutakoaren ondorioz eskatu/emondako txartel bakoitza	11,58 €
6.2- Oinezko guneetara pegatina, txartel eskari barriekaz eta txartel barriztapenakaz ematen diren pegatinak salbu	2,22 €
7- Azterketa eskubideagaitik: azterketan izen emote hutsagaitik ordainduko da, izena emon eta gero azterketara aurkeztu daitekeen edo aurkeztu den ala ez kontuan izan barik.	
7.1--Azterketa eskubideagaitik	4,00 €
8- Alkateak edo zinegotziek egindako ezkontza zibila	100,00
9- Egiteko bikoteen erregistroa	38,32
10.1 Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren ganeko Zerga: balizko zerga kuotaren kontsulta	4,00
10.2 Bestelako tributuen kontsulten ondoriozko erantzun idatziak	3,00

## 6. artikulua- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Legeetan ezarritako edo nazioarteko itunak aplikatzearen emoitza arauetan ezarritako hobariak edo salbuespenak baino ez dira emongo.

## 7. artikulua- KUDEAKETA ARAUAK

Tasea autokitapen araubidean eskatuko da eta *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza* araubide horrentzat xedatuta dagoana izango orokorrean aplikagarria. Dana dala, kasu jakin honeentzako honako arauak jarraituko dira:

1- 1. epigrafeko agirien kasuan, aurretiaz agiri kopurua jakiterik ez dagoan ezker, ataraten diranean [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan finkatuko da eskatzaileak autolikidazinoz ordaindu beharrekoa.

2- 6. epigrafekoak:

- a) Autolikidazinoa ordaindu barik Alde zaharrera sartzeko baimen txartelik ez pegatinarik ez da emongo, baina kobrurako prozedurak jarraituko dau *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza* xedatutakoaren arabera.
- b) Oinezko guneetara ibilgailuak sartzeko galdu, lapurtu edo alferrik galdutakoaren ondorioz txartel barria eskatzeak tasa sortzen dau eta ez dago baliogabetzerik galdutakoa aurkitzean edo lapurtutakoa eskuratzean

3- 7. epigrafekoak:

3.1 ) Lanpostuetarako deialdietan azterketara aurkeztu ahal izateko zeintzuk baldintzak bete behar diran guztiz zehaztuta dagozan ezker eta izena emotean tasea sortzen dan ezker, aurkezten danak betetzen dauzala ulertu behar da eta izena emotean tasea sortzen dan ezker, Erregistro Orokorrean eskaria aurkezten dauanean tasea ordaindu dauanaren justifikazinoa be aurkeztu beharko dau. Ostantzean eskaria ez da kontutan eukiko eta deialditik kanpo geratuko da.

3.2 ) Behin izena emonda eta ordainduta, deialdiaren baldintzak betetzen ez dauzalako azterketara ezin badau aurkeztu edo aurkeztera uko egiten badau, ordaindutako tasa ez da iztuliko.

4- 8. epigrafekoak: Alkateak edo zinegotziak ezkondu daiazan eskatzen dan momentuan bertan edo egitezko bikoteen erregistroan erregistratzeko eskatzen dan momentuan bertan ordaindu beharko da autolikidazinoz tasea, ostantzean eskaririk ez da bideratuko.

## **8. artikulua- ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK**

Zerga arau-hausteen eta horreen kalifikazino desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorren inguruan be, Tributuen ganeko Foru Araua eta Tributuen Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskapenaren Ordenantza Orokorreko arauak aplikatuko dira.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Onarpena: Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2013ko.....ean egindako Osoko Bilkuran.

Indarrean sartzea: 2014ko urtarrilaren 1an

Argitaratua: BAO.....